



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2010-2-7**

VIII. URTEA 1922. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako Triangulo plazatik irten zen Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioa. ESTI EZEIZA

«800 LAGUN INGURUK» **ELKARTASUNA AZALDU DIETE LURJABEEI**

TOLOSA AHT Gelditu! Elkarlanak manifestazioa egin zuen atzo eta azpiegituraren aurkako oihuak zabaldu zituzten kaleetan 4

Josu Iztueta eta Myriam Lopez urre ehiztarien arrastoan

TOLOSA Jack Londonen nobeletako paisaiak zeharkatu dituzte kanoaz bi tolosarrek 6-7



Lizartzan Inauterietako kalejira euripean egin zuten atzokoan . N. LATABURU

Gaur erreko dute Lizartzako Inauterietako ijitoa

GIZARTEA Kaldereroek Tolosako Inauterien hurbiltasuna iragarri zuten atzokoan 5



Tolosako inauterietarako
eskaintza berezia

angula kiloa 390€

arraindegia honen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 674 406
Korreo 33 - TOLOSA

festa on guztioi!

Lurra dardarka



» Uzturretik

Iraitz Lizarraga

Badira egun batzuk Haitiko zoruak dardar egin zuela: naturaren indarren aurrean gizakiaren eskasak direnaren beste de-

mostrazio bat: eskasak bai, baina ez hutsalak, zalantzarik gabe, hala-ko dardarak herrialde garatu batean ez bait luke tamaina honetako triskantzarik eragingo.

Beste behin ere, ezbeharrak miseria gorrian daudenak kolpatu ditu eta haserako shockarekin batera hori gogorarazi ziguten komunikabideek; honekin batera, hildako kopurua, zaurituak, haurren egoera... Azken finean, informazioa.

Egunak pasa ahala ordea, laguntza internazionalak hartu du protagonismoa albistegietan: Nola ez,

herrialde garatu solidarioen laguntzak. Harro ageri dira espainiar komunikabideak, herrialde solidarioenetako bat omen da eta!

Harrotzeko motiboa al da? Lurrikara aurretik Haitik pairatzen zuen egoera ez al da ba herrialde garatuek eragina? Hain zuzen ere espainiar kolonizazioarekin hasi zen dependentsia ekonomikoa apurtezinaren ondorio zuzena. Honetaz ere harro agertu behar al dute?

Badakit historia historia dela eta pasatokia jada ezin dela aldatu eta kolonizatzaileen biloben biloben

biloben biloben bilobek ez dutela eurekin zerikusirik; Espainia eta mundua bihotz oneko pertsoenez eta laguntzeko gogo bizia duen pertsoenez beteak daudela, baina, arren, eman diezaiozun garrantzia benetan garrantzitsua denari. Herrialde solidarioenen rankinga egiteak ba al du zentzurik? Eta zer esan espainiar familiek adopzioan hartutako haitiar haurrei buruzko erreportai sentsazionalistez, bonbero-santuez...

Besteen miseria heroi berriak sortzera bideratua: bere barne arazoak konpontzeko gai ez den eta krisi sakonean murgildua dagoen inperio-ohia (zorionez!) superheroi bihurtua! Eta bitartean Haitin...?

G Gutunak

107,5 Txolarre!

10 urte betetzear da Txolarre Irratia: Zorionak! 10 urte herriari, herritarrei ahotsa ematen; bertatik bertara, gertutik gertura, herritarrik informatzen.

Komunikabideek garrantzia handia duten jendartean bizi gara; jakina da herritar askorentzat komunikabideetan agertzen dena bakarrik existitzen dela. Badakite hori, eta horregatik isiltzen eta ezkututzen dute hainbat herritarren ahotsa komunikabide handietan. Eta isiltzen ez dutenean, euren interesen arabera erabiltzen dute informazioa.

Errealitate horren aurrean, are garrantzitsuagoak bihurtzen dira Txolarre Irratia moduko lekuko komunikabideak, inolako bazterketarik gabe herritarrei ahotsa ematen dielako.

Bidezidorretik egin du lan Txolarrek 10 urte hauetan. Bidezidorretik askotan bide aldapatsuak eta gogorak izaten dira eta badakigu Txolarre Irratiaren bidea ere hala-koa izaten dela askotan.

Esandako guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Txolarre; eta batik bat zuri Jon, zure prestutasun horrekin lan egiteagatik, eta oztopo guztien gainetik aurrera jarraitzeagatik.

Urte askoan Txolarre! 107,5 Txolarre!

Mikel Urkola. Anoetako Ezker Abertzalea.

E Eztabaida info

Tolosako Euskal Herria plaza oinezkoentzat bakarrik izango da. Ongi iruditzen al zaizu? Zergatik?

■ **Anonimoa.** «Oso gaizki, lehen ere aparkatzeko toki gutxi zegoen, eta orain, hau eta gero gutxiago. Ea non utzi behar dugun autoa hemendik aurrera. Horrela bultzatu nahi al da Tolosako komertzio txikia? Modu bikaina».

■ **Anonimoa.** «Beti bezela, bi alderdi ikusten dizkiot erabakia. Nik, biztanle bezela, oso positibo ikusten dut oinezkoentzat gune

gehiago irekitzea. Baina ulertzen dut Alde Zaharreko bizilagunak haserretzea, Tolosan lehendik ere leku gutxi zegoen aparkatzeko eta honekin oraindik gutxiago daudelako».

■ **Anonimoa.** «Argi eta garbi dago erabaki honen zergatia zein den, eta oraingoan ere, Tolosako Udalak ahalik eta diru gehien irabaztea da. Izan ere, Euskal Herri plazako aparkaleku horiek guztiak kentzak, parking-ak erabili behar izatea eskatzen du. Hau da, lehen 8:00etatik aurrera ordaindu behar ez zen aparkaleku hori, orain or-

dainduta izango dugu parkingean. Nazkatuta nago Tolosan aparkatzeko dauden arazoekin, eta dirua ateratzeko sortzen dituzten trikimailu guztiekin».

■ **Alde Zaharreko bizilaguna.** «Gaiizki! Ez dago eskubiderik! Aurrekoek esan duten moduan, komertzio kalte egiten die, eta Alde Zaharreko bizilagunei zer esanik ez. Noizko irtenbideren bat?».

■ **Lapitz.** «Udalak diru gehiago irabaziko duela: ez dut hain garbi ikusten. Kontutan izan lehen ere TAO ordaindu behar zela Euskal Herria plazan eguneko ordurik

gehienetan: ez dakit lur-azpiko parkingetan, orain arteko TAOekin adina irabaziko duten».

■ **Tolosako bizilaguna.** «Oso gaizki! Beti aparkamenduak kentzen. Alde Zaharrean bizi naiz, bai, eta beti bezela, gu gara kaltetuenak. Non demontre aparkatu behar dugu? Gainera askotan bi aldiz ordainduta, txartela alde batetik, eta gure gunean lekurik ez badago, TAO-a. Ez dago eskubiderik».

■ **Gazte eta errebelde.** «Euskal Herria plazan inauterietako txoznak!».



Euskal Herria plazako zoladura birgaitzeko lanak 2010eko urtarrilaren 11n hasi ziren. E. EZEIZA

Z Zurea da hitza info

Etxeko olio batzeko modu hobeagorik?

Kaixo denoi. Dirudienez Tolosaldean pozik izan behar gara etxeko olio batzeko martxan jarri den sistemarekin, hau da, edozein pote sartzeko jarri diren kontenedoreekin.

Baina benetan pentsatzen duzue norbait jarriko dutela pote horiek hustutzen, banan bana?

Ba ez, pote guzti horiek zapaldu edota erabat apurtu ondoren, olio batua eta beste guztia zabortegira doa.

Arrasaten aspaldi daukate bideratuta gai hau, pote berezi baten bidez. Potea behin eta berriro bererabiltzen da.

Agurrak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Azoka berezian euriak eta jendeak topo egin dute

Tolosa » Triangulon ospatu den Zuhaitzaren Egunean bertako eta kanpoko produktuak erosteko aukera egon da.

PABLO ALBERDI

Azoko euriak ez zuen lortu aurretiko zuhaitzen azoka berezia itzaltzea. Eskaintza benetan paregabea izan zen, bai fruta-arboletan, baita baso espezieen artean ere, eta ez ziren gutxi izan postuetan galdezka eta erosgai zeudenak. Zerrenda oso zabala: Fruta-arboletan sagarrondo asko,

udareondoak, gereziendoak, arandoak, kiwiak, nasaia, mizpiradiendoak edo eta irisagarrik izan ziren nagusi.

Baso-espezieen artean denetik. Bai bertakoak, baita kanpotik ekarritakoak ere. Haritza, pagoa, gaztainondoa edota lizarra aurki zitezkeen bertako artean eta insignisak, douglasak, normandiak edota norteko haritzak kanpoko artean.

Zerkausia leporaino

Zerkausian ikusitako artean barazki zerrenda zabala, denak negukoak, eta gazta berria aipatuko genituzke.



Zuhaitz Egunean bertako eta kanpoko produktuak ikusteko eta erosteko aukera egon zen. A. IMAZ

Ezker Abertzaleak «jazarpena» salatu du

Anoeta » Ertzaintzak hainbat aldarrikapen kartel kendu zituen herriko plazatik atzo goizean, 10:30ak inguruan.

ERREDAKZIOA

Anoetako Ezker Abertzaleak Ertzaintzaren «jazarpena» salatu du «berriro ere». Herritarrak base-rietan zehar dantza-soka burutzen ari ziren bitartean, atzo, er-

tzainak etorri eta plazan zeuden aldarrikapen ezberdinak kendu zituen. «Orain arte esan dugun bezain argi diogu, honelako jazarpene ez dutela gure jardueraren eta bereziki momentu honetan, presoekin borrokaldiarekin dugun elkartzuna baldintzatuko. Honen adibide da arratsaldean beste hainbeste pankarta jarri izana» aipatu dute.

Herritarrak eskualdeko «eskubideen alde borrokan!!» bidean, lanean jarraitzea deitu dituzte.



» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak	Merk.	Gares.
Azalea	7,00	10,00
Dipladenia	10,50	-
Xarbota	4,00	6,00
Ziklamena	5,50	-
Salbia	1,00	1,20
Zain zuria	2,80	-
Erromeroa	4,00	6,00

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak	Onddoak potean	9,00	-
Fruta			
Kiwi	3,50	-	
Gaztaina	3,00	-	
Intxaurra	2,50	4,00	
Matxakanak	5,00	-	
Urta	2,00	3,00	
Irisagarra	1,00	-	
Mizpiradiak	3,50	-	
Pikua	3,00	-	
Errezil sagarra	2,00	4,00	

Barazkiak

Tipula	0,80	1,00
Babarrun berria	12,00	13,00
Babarrun zuria	8,00	-
Tomatea	3,00	-

Gardua	3,00	-
Kayotea	3,00	-
Krones	3,00	-
Porruak	1,00	4,00
Ibarrako piparra	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-
Patata	1,00	1,50
Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Azenarioa	1,20	5,00
Espinaka	2,00	-

Barazkiak (unitatea)

Eskarola lisua	1,00	1,50
Eskarola rizatua	1,00	1,50
Azalorea	1,00	1,25
Txikoria	1,00	-
Trebisoa	0,50	-
Letxuk	0,50	0,60

Besteak

Arrautzak	2,50	3,00
Artisau ogia	2,80	3,70
Madalenak (500 gr)	3,60	-

Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Ogi biologikoa (500 gr)	2,20	-
Irasagarra	3,00	6,00
Artisau opila integrala	1,00	-

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardi-gazta	14,00	24,00
Behi-gazta	8,00	9,00
Ardi-Behi-gazta	11,00	-

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	3,60
Arrautzak	3,50	-
Intxaurra	4,00	6,00
Baratxuria	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Ahuntz gazta (200gr)	3,00	-
Azukrea	3,35	-
Erremolatxa	1,60	-
Kogoiola	1,00	-
Arroza	1,90	2,00

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Villabona.** Txermin auzoan etxebizitza alokatzen da. Erabat kanpoaldera begira. Berogailu sistema zentrala. 75 m². Aukeran garajea ere alokatu daiteke. 680 19 2772.

LANA

■ **Lan bila.** Gizonezko bat lan bila dabil: pertsona helduak zaintzen, baserriko lanak egiten edota beste edozertan lan egiteko prest dago bera. Interesa duenak deitu dezala telefono zenbaki honetara: 679 80 38 70.

■ **Emakumea.** Emakumezkoa behar da goizez eta arratsaldez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Interesa dutenek deitu dezate la 615 76 74 34 telefono zenbakira.

ESKAITZA

■ **Bigi garbitasunak.** Bigi garbitasunak, alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakiak: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ **Facebook.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK Facebook sare sozialean ere dagoeneko badu bere ataria. Eskualdeko egunkariaren laguna eginez gero, zuzenean jaso ahal izango dituzu zure herriko azken albiste guztiak. Gero eta lagun gehiago atxikitu dira, eta jada beste modu batera jasotzen dute informazioa lagun horiek. Bestalde, egunkariaren webgunera, tolosaldeko hitza.info, lotura zuzena du eta honen bitartez ere heldu zaitezke. Sartu gure sare sozialean:

www.tolosaldeko hitza.info



Banabarrak eta bertsolariak, Gaztetxean

LEITZA • Eguberriak duela egun batzuk amaitu baziren ere, atzo Atekabeltz gaztetxean ar-tzain andrez eta gizonaz jantzita gazte ugari ikusi zitezkeen. Torrean sukaldatutako banabarrak jatera bildu ziren 30 lagun inguru. Bazkalostean, *Zili* eta *Poligono* bertsolariak arduratu ziren egonaldia alaitzeaz, beraien bertsokin. Egunari berriz, amaiera musikarekin eman zioten, Garraxi taldearen kontzertuarekin hain zuzen. N. LATABURU



Sendi Ekintzako sagardoa, edateko prest

IBARRA • Bigarren aldiz atzo Sendi Ekintzakoek elkartearen eguna ospatu zuten. Egun guz-tian zehar izan ziren ekitaldiak. Hasteko goizean, xaboizko burbuilak egiten aritu ziren 20 haur inguru, gurasoek lagunduta. Arratsaldean izan zen eguneko ekitaldi jendetsuena, kros herrikoa, eta eguna borobiltzeko, Elkarteko txiria ofizialki ireki zuten. Halaber, gonbidatu gisa, lan horretaz Jexlax Mari Mujika aizkolaria arduratu zen. N. LATABURU



European ere dantzara atera dira

ANOETA • Soka-dantza eguna ospatu zuten atzo Anoetan. Goizean base-rriz baserriz ibili ostean, eguerdi aldera herriko plazan elkartu ziren herri-tar guztien aurrean dantza egiteko. Goizean nesken txanda izan zen, eta arratsaldean mutilena. Eguraldi txarra egin bazuen ere festa ez zuen za-puztu eta 90 lagun inguru atera ziren dantzara. E. EZBIZA



Triangulo plazatik abiatu zen manifestazioa 17:00etan eta San Frantzisko pasealekutik barrena joan ziren gero. E. E.

Ehunka herritarrek AHT gelditzeko eskatu dute

Tolosa • AHT gelditu! Elkarlanak deituta «800 lagun inguru» atera ziren kalera, lurjabeei babesa erakusteko asmoz.

ERREDAKZIOA

Ehunka lagun atera ziren kalera atzo AHTren aurka oihu egitera. Triangulo plazatik abiatuta Tolosako kaleak zeharkatu zituzten ez ez AHTrik ez eta zuen porlanean

itoko zarete bezalakoak esanaz. Atzoko protestekin proiektua bera gaitzesteaz gain, lurjabeei babesa erakutsi nahi izan zieten Tolosaldeko AHT gelditu! Elkarlanakoek. Ertzaintzaren hainbat furgoneta ikusi ahal izan ziren manifestazio-ak irauzuen bitartean, eta hauen zaintzapean egin behar izan zuten ibilbidea, bildutako herritarrek.

«AHTa oraindik gera litekeela» azpimarratu zuten beste behin ere herri mugimendukoek, eta horretarako «ezinbestekoa dela ingurumena eta gizarte oro har kontuan hartzen ez dituen proiektu honen aurka dauden talde, pertsona eta erakunde guztien inplikazio handiagoa».

Atzoko manifestazioa «berezia» izan zela aipatu zuten antolatzaileek, jada eskualdean hasi baitira lur desjabetzeak egiten.

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik 12ra

Matrikulazio Ordutegia:
© 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net

Euskadi

Irurako Ikastola

- (2-12 URTE)
- Haur Hezkuntza
- Lehen Hezkuntza

“HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN”

Zilar kalea 4 - San Migel 5 • IRURA - Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

Euskadi

Lizartzan gaur emango diete amaiera Inauteriei ijitoa errez; Tolosan, berriz, atarikoei ekin zieten atzokoan, kaldereroen irteeraren eta Aiz-Orratz elkartearen Haur Jaialdiaren eskutik.

Amaitzear hemen, hastear han



Kaldereroak Tolosara heldu ziren atzokoan, zartaginak eskuetan. N. LATABURU



Txaragaren doinuaz kalejira egin zuten lizartzarrek. N. LATABURU



Punky koadrila honek ere ez zuen hutsik egin; Jainkoak berak ere ez omen zuen festa galdu nahi izan. N. LATABURU



Poxpolo pailazoaren bisita izan zuten haurrek Leidorren, Aiz-Orratz elkarteak antolatzen duen Haur Jaialdian; magoak, sorpresak,... ere izan ziren. N. LATABURU

ERREDAKZIOA

Euskal Herrian eguraldiaz kexatzea alferrikako kontua da, egun euritsuak eguzkitsuak bezain bestekoak izaten dira eta. Horrexegatik, irribarrea ahotan eta mozorroak soinean irten ziren lizartzarrak atzokoan kalera, euriari eta hotzari aurre eginez. Imajinarioak berriz ere bere fruituak eman zituen eta buru adina mozorro mota ikusi ahal izan ziren. Festarako eta parrandarako guztiak balio du.

Gaur emango diete amaiera, ijitoa erretzen dutenean.

Tolosa, motorrak berotzen

Lau egun barru egingo du eztanda festa handiak Tolosan eta festa giroa nabaria da dagoeneko kalean. Aiz-Orratz elkarteak urtero antolatu ohi duen Haur Jaialdiak ere horretan lagundu zuen, lehen mozorroak ikusi baitziren haiei esker.

Iluntze aldera, berriz, kaldereroen txanda izan zen. Zartagina eskuetan Inauteriak hemen direla gogorarazi zieten tolosarrei. Hala dio behintzat ezagun egin dituen kantuak...

» LIZARTZAN GAUR

Otsailak 7, gaur

- **11:00.** Meza nagusia.
- **12:00.** Hamaiketako plazan; bertean, dantzariak puska plazen.
- **13:00.** Ihaute Dantzak herriko dantzarien eskutik.
- **14:00.** Bazkaria.

Jarraian. Txarangak, karaokea, jokoak, zozketak... izango dira. Gauean ijitoa erreko dute Inauteriei amaiera emateko.



Maskarekin Inauteriak iragarri

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

SAMARRE 0
www.samarre0.com
0203948@hezkuntza.net

- Haur Hezkuntza (3 urterik hasita)
- Lehen Hezkuntza

ORDIXE TOLOSA
www.ordixe.net
0203948@hezkuntza.net

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Batxilergak

Euskaratik eta Euskaraz
Matrikula opea: otsailaren 1etik 12ra

LASKORAIN IKASTOLA
Txiki-ondakoa - 48100 - 010 110

KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA ETA ELEANITZA 0-18 URTE
www.laskorainikastola.net | tolosa@laskorainikastola.net | 945 987 127

ALKIZA Goizetik lanean jardun zuten Kultur Etxean bildutako herritarrek; helburua, berriz, Inauterietako maskarak prestatzea. Txukun-txukun eskulanak elkarlanean burutu zituzten, etxeko txikienek gurasoen laguntzaz. Lotzeko sokaz eta bridaz, prezintuaz, ur margoaz, kolaz, ... baliatuta era eta forma guztietako maskarak egin zituzten txikieneztat. Guztia ez zen lana izan hala ere, izan ere, hamaitakoko ederraz eta mozorro eta Inauterietako argazkien proiektioaz ere gozatu ahal izan zuten alkitzarrek. N. LATABURU

XIX. mendeko azken urteetan, milaka eta milaka izan ziren urre ehizak erakarrita Yukon jomuga izan zuten lagunak; XXI. mendearen hastapenetan, orduko argazki bat izan du hara joateko akuilu sei laguneko taldeak. Tartean Josu Iztueta Azkue eta Myriam Lopez Ansorena tolosarrak aurkitzen ziren. Euren bizipenak dira ondorengoak.

Urrearen peskizan, Yukon ibaia kanoaz

JOSU IZTUETA AZKUE

Neguan gaude, elurrak zuriz estali ditu mendiak eta pare bat aldiz elurra itsasbaterterraino jaitsi da. Urte sasoi honetan ez da harritzekoa izango, berriro, antzeko zerbaite ikustea. Hotza ere egin du. Euskal Herriko bazter gehienetan zeropetik egon dira termometroak. Etxetik begiratuta, ordea, gure noizbehinkako hotza *epela* da, badaude munduan urtean sei hilabetez elurra, izotza eta hotza eguneroko bihurtzen diren toki asko. Kanada iparraldeko Yukon eta aldamenean dagoen AEBetako Alaska, adibidez... Eta, gezurra badirudi ere, horrelako lurraldeak erakargarriak egiten zaizkigu gutako askori. Zergatik da lurralde hura erakargarria?

XIX. mendeko azken urteetan milaka lagunentzat urrea izan zen haraino joateko arrazoia. XXI. mende hasieran garai hartako argazki bat izan da hemengo sei lagun hara joateko aitzakia. Guretzat irudi bat zen, baina izan zitezkeen ibai baten izena, Klondike, esaterako; edo idazle baten izena, Jack London, adibidez... edo zenbaki soil bat, 1898!

Urre ehiza asko izan dira historiaren zehar, Australian, Kalifornian,

Chilkoot bidean pauso bat aurrera egiten dugun aldiro, 100 urte egiten dugu atzera

Kanoan goazela, zoologiko bat ireki digutela dirudi: hartzak, izokinak, arranoak...

Amazonian, Hegoafrikan, eta baita gurean ere. *Far Westeko Euskal Herria* liburuan Asun Garikano idazle tolosarrak ederki kontatzen ditu itsasoz bestaldeko urrearen istorioak. *Berria*-ko orrialdeetan Iñaki Egaña historialari donostiarrak hemengo metal preziatuaren pasadizoekin artikulua bitxia argitaratu zuen duela hilabete pasatxo.

Joan den abuztuaren amaieran, 1898an 30.000 lagunek —batzuek 60.000 diote— egindako bideari ekin genion guk. Lehen astean Chilkoot Trail esaten dioten ibilbidea oinez egin eta Whitehorse izeneko herrira iritsi ginen, eta hurrengo bi asteetan herri hartan bertan kanoa pare bat alokatu eta Yukon ibaiari jarraitu genion, Dawson Cityra heldu arte. Oinezko partean, euria zela eta, ia egunero busti ginen; arraunekoan, berriro, lehor mantendu ginen. Hobe horrela, Yukon ibaiaren urak urte erdian izoztuta eta beste erdian

oso hotzak egoten baitira, hotze-giak irauli eta luzaro uretan irauteko.

Chilkoot bidea

Skagway herria Alaskako hego kostaldean dago. Jendez eta kargaz betetako itsasontzietan iristen ziren haraino urre ehizak jotako gaixoak eta gizagaixoak. Eta lehorreratu bezain laster, 1.000 kiloko bagajea antolatuta behar zuten Kanada aldera pasatzeko. Arazorik ez zen falta: eguraldi zakarra, erliebe gogorra, gosea, elkarbizitza... Gainera, haietako asko eta asko inoiz horrelako baldintzetan zaildu gabeak ziren, eta bizpahiru hilabete pasatzen zuten aldiko 30 kiloko zama bizkarrean hartuta, gora, eta hurrengoaren bila, behe-eraginez, aurrera eta atzera, behin eta berriro. Zaldiak, mandoak, behiak, zakurrak, ahuntzak, elur oreinak, denetarik baliatu zuten garraio lanak errazteko.

Chilkoot Pass mendatea aireko kable bidez hornitu zuten, ataka zail hura gainditze aldera. Aberasteko ametsa garesti ordaindu zuten hasieratik. White Pass mendatea, berriz, etzanagoa eta luzeagoa da, eta hura aukeratu zuten garai-ko enpresari batzuek trenbidea eraikitzeko. Lanak 1898an hasi ziren, eta 1900. urtean amaitu, baina ordurako, handik 1.000 kilometrorra, Klondike, Bonanza, Eldorado eta inguruko ibaietan, urre ehizaren gainbehera hasia zen. Gutxi batzuek asko topatu zuten, eta gehienek oso gutxi, edo ezer ez. Trenera irakur zuten, joan zirenen erdiak bueltatu nahian zebil-tzan.

Egun, Chilkoot bidea Ipar Amerika osoko trekking ezagunenetakoa bat da. AEBetan hasten da eta Kanadan amaitzen. 52 kilometroko ibilbidea da guztira, eta ondo markatua dago. Bainabatez ere ondo arautua: eguneko, gehienez, 50 mendizale ibil daitezke bidean; 35 euro ordaindu behar da pertsona-ko; lau edo bost egunean egitea gomendatzen dute; leku jakinetan kanpatu behar da; komun bereziak erabili, arropa eta oinetako egokiak jantzi, elurrolde arriskuak saihestu, animalia basatien ohiturak errespetatu eta, batez ere, kontu handiz ibiltzeko gomendioak ematen dituzte! Arriskuak zure gain hartzearekin batera, erreskatteak 2.000 dolarreko kostua duela abisaturik zaude!

Ikusgarria da bidea, ederra esperimentzia, eta batez ere bat aurrera egiten duzun aldiro buruak 100 urte egiten du atzera. Kolore bizi-ko inguru zoragarritik zuri-beltze-ko argazki zaharren garaira itzultzen zara.



Chilkoot lepoaren magalean, gora abiatzear. Duela mende bat urre bilatzaileak ibiltzen ziren bertan. JOSU IZTUETA AZKUE

Atxik jolas-joko-kirolari!, atxik herriari!



Euskal Herriko zazpi lurraldeetako kirolariak lehen mugarrira jarri dute Euskal Herria ofizialki ordezkatzeko ekimenean.

2009ko abenduaren 27an, Donostiako belodromoan, bost mila euskal herritarrek baino gehiagok bat egin zuten haiek.

Egin dezagun bat guztiok!



Erosi **DVDa** otsailaren 13an eta 14an



+
8€ =



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria



Hiruko laguneko kanoetan jaitsi zuten Yukon ibaia. JOSU IZTUETA AZKUE

Kanoaz, 700 kilometro

Benett izeneko laku bazterrak ontziola bihurtu zituzten; jende uholde hark guztiak milaka ontzi eraiki behar izan zituen Yukon ibaian behera udaberriarekin batera abiatzeko. Zailtasunak amaitu zirela pentsatzen bazuen norbaitek, berehala konturatuko zen oker zebilela. Handik aurrerako bidea negu luzeko izotz horma puskatzearekin batera hasten zen urrearekin itsututako ameslari haientzat. Bide likidoa askok uste zuten baino gogorragoa zen ordea: laku haizetsuak, ur biziak, ezkutuko harriak, zurrumbilo bihurriak, irla arteko labirinto zailak... Guk dena errazagoa izan dugu: antolaketak, materiala eta informazioa erosi edo aloka daiteke. Paisaia doka da eta gogoa saltzeko beste daukagu.

Yukon ibaiak egoskorra dirudi: itsasotik 40 km-ra jaiotzen da, baina 3.000 km-kobidea egiten du. Bering itsasartera. Gu ez gara hainbeste tematuko. Whitehorsek (20.000 biztanle), Yukongo hiriburuak, era guztietako zerbitzuak ditu, eta egun osoa pasa dugu han prestaketa lanetan. Hurrengo bi asteetan ustez beharko duguna eskuratu behar da. 300 km-ra dago Carmacks herria, baina han gauza gutxi dago, eta dagoena garesti topatuko dugu.

Sei lagun gara —lau gizonezko eta bi emakumezko—, hiru kanoetan bina edo bi kanoetan hiruna joan erabakitzea erraza izan da. Autonomia osoa izango dugunez, bi ontzi orekatu gobeatzea eta elkarren artean laguntzea egokiago iruditu zaigu. Eta lau gipuzkoar eta bi galiziar banatzeko hainbat konbinazio posible egon arren, hori ere azkar adostu dugu. Hasierako txisteeek umorea neurtzeko

balio izaten dute, baina batez ere tentsioak uxatzeko.

Janaria, arropa, sukalde txikia, erregaia, dendak, lo zakuak... traste askotxo txukun-txukun bidoi eta poltsa estankotan sartzeko. Kanpoan lotuta: aizkora, zerra, pala, soka, olana, arrauna... eta buruan solte: kezkak, ilusioak, beldurrak, oroitzapenak... Abuztuko azken egunean eman ditugu lehen arraukadak, agian berandu. Uda izan arren, udazkena ate-joka dator, eta neguak hemen ez dio egutegiari begiratzen.

Ur-lastera alde dugula, erraz egiten ditugu kilometroak, eta agudo pasatzen dira orduak. Orduko 10 km egitera iristen gara askorik nekatu gabe: guk arranean

bost kilometro egin ditzakegu denbora horretan, baina uraren indarrak beste bost eramaten gaitu ibaian behera. Urtarileko beherapenetan bezala, 2 x 1. Eta ezker-eskuin dauden *erakusleihoak* erentazioz beteta daude: koniferoak berde-berde ageri dira, zuhaitz hostozabalak horitzen ari dira, eta aste gutxi barru gorritzen hasiko dira. Jack Londonen nobeletan irudikatzen genituen paisaiak bere horretan dirau.

Zazpi orduko jardunean, ezustekorik gabe, asko aurreratzen dugula jakiteak lasaitu egiten gaitu. Bigarren egunean, Laberge aintzira arriskutsua hegotik iparrera gurutatu dugu. Fisikoki egunik gogorrena izan da: 10 ordu 50 km egi-

teko. Baina haize bolada indartsu-erik ez dugu izan, eta atsedean ederra hartu dugu gaua pasa dugun hondartzan.

Itsasoan ohitutako Markox, Paisai Donibanekoa, kanoa baten lemazain doa; Myriam tolosarra eta Pablo basozain galiziarra harekin dira. Beste kanoan ni, lehorrekoa, popan, Maider zarauztarra erdian eta Alvario biologo galiziarra brankan. Ontzi bakoitzean mapa bana dugu, erabakiak azkar hartu behar dira; nondik joan, norantz egin edo non gelditu segundo gutxitan jakinarazi behar da. Ur-lasterak laguntzen du, baina manio-brak ere zailtzen ditu. Yukon ibaiaren jaitziera Carmacks herrixkaraino egiten du jende askok, hortik aurrera jarraitzea erabakitzen duenak badaki zer topatuko duen: Five Fingers inguruko parajea, ikusgarria bezain arriskutsua. *Bost hatz* izeneko ur-lasterren igarobidea. Five Fingers hori mamu antzeko zerbait da, galarazi ez, baina loa arintzen duen esaldi laburra. Eskuineko kanalaren erditik hartu behar dela diote gida guztiek, guk ere horrelaxe egin dugu, eta ondo joan zaigu. Ibaia baldintza onetan zegoen, eta geu mentalizatuta geunden. Lehenengo eta bigarren arroka artetik primeran pasatu gara.

Zoologiko baten atea ireki ditzutela dirudi: izokinak uretan, arranoak arrantzan, kurriilo bandak hegan, hartzak zelatan, otsoak ihesi, altzeak elikatzen... Denetarik ikusi dugu, askotan nahi baino hartz arrasto gehiago dendak muntatzeko lekuan. Argi ibili beharra dago janari usainekin: hartzak usaimen oneko animaliak izateaz gain, orojeak dira, eta urtero izaten da sustoren bat. Guk ez daukagu armarik, eta aldean eramate-

ko gomendatu diguten esprai berezi hori ez genuke hartz baten aurrean probatu nahi. Premia larrian gertatuz gero, 200 kiloko animalia bati espraia hustu eta, norik jakin, agian izutu ordez, eztula eta hase-reea eragingo lioke.

Dowson City jomuga

Hootalinqua, Big Salmon Village, Selkirk Rock, Columbia Slough, Five Fingers, Rink Rapids, Merrit Island, Tatchun Creek, Big Horn Crossing, Minto, Hell's Gate, Threeway Channel, Twin Falls, Halfway Woodcamp, White River, Dead Man Shore... mapetan azaldu diren dozenaka toponimo begiz identifikatu ditugu. Hango indigenek erabilitako leku izenak dira batzuk, ondorengoek jarritakoak besteak. Eta hamargarren egunean Dawson Cityra ailegatu gara. Pozez lehorreratu, eta denbora aprobeztatzeari ekin diogu. Hiru egunez, hiriko museo, denda, saloi, kale, taberna eta inguruak bisitatu ditugu, topa litezkeen pertsonaia xebebreneak ezagutzeko parada izan dugu, eta une batez, 1898. urtetik gaurdaino gauzak gutxi aldatu direla iruditu zaigu. Bizimodua asko aldatuko da 100 urtean, eta guri 10 egunean bizitza ulertzeko modua pixka bat ere bai.

Irailaren erdi aldera amaitu dugu gure urre ehiza partikularra. Paisaiak urre kolorea hartu duenean iritsi zaigu etxeratzeko eguna. Krisi garaia delako edo, munduko merkatuetan inoiz baino garestiago dago urrea; ontza bat ia mila dolar (kilo batek 23.000 euro) pagatzen da, balio du, kotizatzen da... Yukonen egunotako -50°C-etan, baina, sutara bota eta urreak ez du batera berotzen; horretarako, inguruko basoko egurrak hobea izaten jarraitzen du.



Yukon ibaiaren ertzean jarritako kanpalekuetako bat. JOSU IZTUETA AZKUE



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 032. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

■ **Ibarra.** Ohiko batzarra egingo du Udalbatzak etzi, hilak 9, udaletxe-ko batzar aretoan, 09:00etan.
■ **Zizurkil.** Emakumei zuzenduriko autodefentsa ikastaroa antolatu du Udalak. Izena hilaren 20a baino lehen eman beharko da.

Zinema

■ **Villabona.** Gaur, hilak 7, 17:00etan *Luvia de albondigas* eskainiko dute zinean eta 19:30ean berriz *Teniente corrupto*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, 1M. Gernika-ko arbola3. 943 65 10 40.
■ **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25. 112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Zahar berri.
09:00. Nonochan.
09:30. Tolosaldean Gaur.
10:00. Klik.
10:30. On ein!
11:00. Planik bai.
11:30. Tolosaldean Gaur.
12:00. Eskuokin.
12:30. Barrebusa.
13:00. Jarraipena.
13:30. 16 mm.
14:00. Kafe t' erdi.
14:30. Gipuzkoako kultura.
15:00. Kiroleroak.
15:30. Wazemank.
16:15. Klipak.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adieraztako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Martina Esnaola (Ugarte).
Aupa amona, gaur 80 urte.
Ondo pasa familiaren partetik.



Urte Askoan!

Oihan Lopetegi Etxedona (Tolosa).

Bihar 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan eta bereziki Nahiaren partetik.



Urte askoan PELLO!

maite zaituztegu!

Animo attona! Maite zaitugu!

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA
Euskalduna, Denona eta Denontzat
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua
JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Fleming Ikastetxea.
Hour Hezkuntza Arnoan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arnoan (6-12 urte)
Tel.: 943 69 33 12 • Tel./Faxo: 943 69 14 13
012277@hezkuntza.net

Emiabea & H.I.
Villabona
Emiabea Ikastetxea.
Derrigorretako Bigarren Hezkuntza
Arnoan (12-16 urte)
Tel. Faxo: 943 69 37 33
01295200@hezkuntza.net

Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik 12ra

2-16 Urte
bi urteko gelan - udal ludoetara

uzturpe ikastola
herrian hazi eta bezi
izanaldiak kalitatezko heziketa euskalduna eskaintzen
dei lezaguazu eta bisita antolatuko dugu
matrikulazio epea otsailaren 1etik 12ra
9:00etatik 12:30etara / 14:30etatik 18:00etara

Tel.: 943 61 17 99 / Fax: 943 61 17 99 / www.uzturpe.net

hirukide
zainkerri Jesuitak eskolapinak
www.hirukide.org

KALITATEZKO HEZKUNTZA TOLOSAN